

Euskal Administrazio Publikoek 149.104 pertsona enplegatu zituzten 2024ko urtarrilaren 1ean, aurreko urtean baino % 1,5 gehiago

Funtzionarioak % 4,5 hazi dira, eta orain guztizkoaren % 64,6 dira

Euskal Administrazio Publikoek (Estatuko Administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren mendeko langileak kontuan hartu gabe) 149.104 pertsona izan zituzten lanean 2024ko urtarrilaren 1ean, Eustaten datuen arabera. Euskal Administrazioetako landunen kopurua % 1,5 igo da aurreko urtearen aldean.

Euskal Administrazioan, 2024an, emakume enplegatuak (95.747) guztizkoaren % 64,2 dira: sexuaren arabera, 4 hamarren gehiago 2023ko datuen aldean. Bestalde, gizonen kopurua, 53.357, % 35,8 zen, eta aurreko urtearen aldean neurri berean jaitsi da. 2019tik 2024ra bitartean, emakumeen presentziak % 8,7ko hazkundera izan du Administrazioan.

Euskal administrazio publikoetako enplegatuak urtarrilaren batean, sexuaren arabera. 2019-2024

	2019		2020		2021		2022		2023		2024	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	139.569	100,0	139.885	100,0	142.526	100,0	146.636	100,0	146.968	100,0	149.104	100,0
Emakumeak	51.456	36,9	51.670	36,9	51.617	36,2	52.778	36,0	53.164	36,2	53.357	35,8
Gizonak	88.113	63,1	88.215	63,1	90.909	63,8	93.858	64,0	93.804	63,8	95.747	64,2

Data 2024ko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen direktorioa

Administrazio bakoitzeko feminizazio-tasa % 50etik gorakoa da: Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da, % 70,2ko tasarekin, eta, ondoren, Foru-Aldundiak, % 60ra iritsiz. Hamar puntura daude Toki Erakundeak, eta horietan gizonen eta emakumeen pisua ia berdina da: gizonak % 50,1 dira, eta emakumeak % 49,9.

Egitura Euskal Administrazio Publikoetan, esparru arautzailearen arabera

2024ko urtarrilaren 1ean, **funtzionarioak** Euskal Administrazio Publikoetako langile guztien % 64,6 ziren, aurreko urtean baino ehuneko 1,9 puntu gehiago, urte arteko % 4,5eko igoeraren ondoren; **lan-kontratuko langileak**, berriz, % 34,5 ziren, bi kasuetan Osakidetza estatutupeko langileak barne. Gainerako % 0,9 **goi-kargudunei** zegokien.

Euskal AEko administrazio publikoetan langile enplegatuak, esparru erregulatzailearen arabera. 2024/01/01

	Guztira	Eusko jaurlaritza eta mendeko erakundeak	Foru aldundiak eta mendeko erakundeak	Toki-erakundeak eta mendeko erakundeak	Gainerako erakunde publikoak
Guztira	149.104	97.765	12.665	27.783	10.891
Goi karguak	1.420	333	220	700	167
Funtzionarioak guztira	96.304	69.062	7.890	16.290	3.062
Funtzionario finkoak	66.107	50.823	4.521	8.601	2.162
Bitarteko funtzionarioak	30.197	18.239	3.369	7.689	900
Lan kontratadunak guztira	51.380	28.370	4.555	10.793	7.662
Lan kontratadun finkoak	19.169	7.416	2.710	5.550	3.493
Aldi baterako lan kontratadunak	32.211	20.954	1.845	5.243	4.169

Data 2024ko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen direktoria


Enpleguaren **behin-behinekotasunari** dagokionez, langileen % 57,2 **finko** gisa sailkatzen da, eta funtzionario finkoak eta lan-kontratuko langile finkoak hartzen ditu, estatutupeko langile finkoekin batera.

Bitarteko funtzionarioak % 20,3 dira, aurreko urteko ehunekoaren antzekoa, % 1,6ko igoerarekin. Bitarteko funtzionarioen goranzko bilakaera hori ez da gertatzen EAEko administrazio guztietan; alde batetik, portaera positiboak dituzte Foru-Aldundiek eta Tokiko Erakundeek eta haien mendeko erakundeek, % 7,2ko eta % 5,8ko hazkundearekin, hurrenez hurren; bestetik, Eusko Jaurlaritzak, bere mendeko erakundeekin batera, eta Gainerako erakunde publikoek % 0,8ko eta % 1,7ko jaitsierak izan dituzte, hurrenez hurren.

Bestalde, *aldi baterako lan-kontratuko langileen* pisuak behera egiten jarraitzen du, % 21,6ra arte, aurreko urtearen aldean, % 8,3 jaitsi baita. Joera hori administrazio guztietan gertatzen da, eta nabarmentzekoak dira Foru Aldundiak eta haien mendeko erakundeak (%-12,7), ondoren Eusko Jaurlaritza eta mendeko erakundeak (%-9,7) eta Gainerako erakunde publikoak (%-4,9).

Oro har, *bitarteko funtzionarioen* eta *aldi baterako lan-kontratuko langileen* batura, 2024ko urtarilaren 1ean, guztizkoaren % 41,9 da, % 3,7ko jaitsierarekin.

2024ko urtarilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, esparru erregulatzailea



Iturria: Eustat. Administrazio publikoen direktoria

Langileen banaketa mendekotasun-administrazio motaren arabera

Euskal Administrazioiko 149.104 langileetatik, **2024ko urtarilaren 1ean**, % 65,6 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioakoak ziren, % 18,6 Tokiko Erakundeetakoak, % 8,5 Foru-Aldundietakoak eta gainerako % 7,3 Unibertsitatekoak, Fundazioetakoak eta beste Erakunde Publiko batzuetakoak. Azken urtean, Foru Aldundietako enplegatuen kopuruak gora egin du gehien (% 3,2), gero Eusko Jaurlaritza eta Tokiko Erakundeak (% 1,7) eta horien mendeko erakundeak (% 1,6). Gainerako erakunde publikoetan % 3,1eko jaitsiera izan da aurreko urtearen aldean.

Urteko batez besteko langileen bilakaerari jarraituz, 2018. urtearekin alderatuta, EAEko administrazioetan lan egiten duten pertsonen kopurua 10.920 gehiago da, urteko batez besteko tasa metatua % 1,3 delarik. Balio absolutuetan, **Eusko Jaurlaritzak**, mendeko erakunde guztiekin batera, 8.086 langile gehiago izan zituen, % 1,5eko batez besteko aldakuntza metatuarekin. **Tokiko erakundeak** bigarren lekuan daude kopuru absolutuetan, 1.342 pertsona gehiagorekin, % 0,8ko batez besteko aldakuntza-tasa metatuarekin. **Foru-aldundiak** hirugarren postuan daude, 1.062 pertsona gehiagorekin eta % 1,5eko batez besteko tasa metatuarekin. Azkenik, **Gainerako Erakunde Publikoen** multzoa legoke, besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitatea, Fundazioak eta Elkarte publikoak biltzen dituen, urteko % 0,7arekin eta 430 pertsona gehiagorekin.

Euskal herri administrazioetan batez besteko pertsonal enplegatua, entitate-motaren arabera. 2018-2023

	2018		2019		2020		2021		2022		2023		2023 / 2022	BBMT 2023 / 2018 (%)
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%		
Euskal administrazioak, guztira	136.285	100,0	137.373	100,0	140.411	100,0	144.068	100,0	145.629	100,0	147.205	100,0	1,1	1,3
Eusko Jaurlaritza	88.210	756,0	88.457	747,4	91.230	755,2	94.077	763,7	95.424	780,8	96.296	65,4	0,9	1,5
Foru-aldundiak	11.668	100,0	11.836	100,0	12.080	100,0	12.319	100,0	12.221	100,0	12.730	8,6	4,2	1,5
Tokiko izakundeak	26.114	223,8	26.504	223,9	26.325	217,9	26.598	215,9	26.913	220,2	27.456	18,7	2,0	0,8
Gainerako erakunde publikoak	10.293	88,2	10.576	89,4	10.778	89,2	11.074	89,9	11.071	90,6	10.723	7,3	-3,1	0,7

BBMT: batez besteko bariazio metatuaren tasa

Data 2024ko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen direktorioa

Aurreko urtearen aldean, 2023an Euskal Administrazio Publikoetan lan egin zuten batez besteko langileek % 1,1eko hazkundera izan zuten, aztertutako aldiko batez besteko metatua baino tasa txikiagoa, eta nabarmentzekoa da Foru-Aldundietako eta haien mendeko organismoetako langileen % 4,2ko hazkundera.

Langileen banaketa mendekotasun-lurraldearen arabera

Lurralde historikoei dagokienez, apenas ikusten den aldaketarik lurraldeen banaketan; Bizkaiak langile enplegatu guztien % 49 hartzen du, ondoren Gipuzkoak (% 29,6) eta, azkenik, Arabak (% 21,4), aurreko urtearen aldean oso aldaketa gutxirekin.

Euskal AEko administrazioetan pertsonal enplegatuen lurralde-banaketa. 2024/01/01

	Guztira	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskal administrazioak	149.104	31.948	73.070	44.086
Eusko Jaurlaritza	97.765	21.101	48.317	28.347
Foru-aldundiak	12.665	3.925	5.683	3.057
Tokiko izakundeak	27.783	5.022	13.339	9.422
Gainerako erakunde publikoak	10.891	1.900	5.731	3.260

Data 2024ko Abenduaren 18a

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen direktorioa

Ohar metodologikoa: Administrazio Publikoen Direktorioa osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Foru-Aldundiek eta Udalek, bai eta haien mendeko Administrazioko Erakunde Autonomoek, Erakunde Publikoek, Sozietate Publikoek, Fundazioek eta Irabazi-asmorik gabeko erakundeek ere. Barne hartzen dira % 50eko edo hortik gorako partaidetza publikoa duten erakunde guztiak, dela administrazio bakar baten partaidetza, dela hainbat administrazio publikoren baterako partaidetza.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62